

# Urte berri on!

ABENDUA 2023 / DECEMBRE 2023

# UZTARITZEKO HERRIA

19. HERRIKO INFORMAZIO ALDIZKARIA BULLETIN D'INFORMATION MUNICIPAL N°19

# AURKIBIDEA / SOMMAIRE


## HERRIKO ETXEA / MAIRIE
Hirigintza zerbitzuari begirada berezia ..... 4
Zoom sur le service urbanisme ..... 5

## ERROLDATZEA / RECENSEMENT
Combien d'Uztariztar sommes-nous ? ..... 6
Zenbat uztariztar gara? ..... 6

## VIE MUNICIPALE / HERRIAREN BIZIA
Marché hebdomadaire / Asteroko merkatua ..... 7
Accueil des nouveaux uztariztar / Uztariztar berriei ongi etorria ..... 7
La commune a changé d'identité visuelle ..... 8
Herriak nere nortasun bisuala aldatu du ..... 8
Projet de nouvelle médiathèque ..... 8
Mediateka berriaren proiektua ..... 8
Inauguration de la Mairie / Herriko Etxaren estreina ..... 9

## HIZKUNTZA POLITIKA / POLITIQUE LINGUISTIQUE
Bide orria / Feuille de route ..... 10
BEKA ..... 11

## HERRITAR PARTE HARTZEA / PARTICIPATION CITOYENNE
Aurrekontu parte hartzailearen bilana / Bilan du budget participatif ..... 12
GHK-k antolatutako zinema gaualdia / Soirée organisée par le CMJ ..... 13

## HEZKUNTZA - ESKOLAK - GAZTERIA
Gau Beltza ..... 14
L'été au centre de loisirs / Uda aisialdi gunean ..... 14
L'été à l'espace jeunes / Uda gazte gunean ..... 15

## BIDEAK / VOIRIES
Bide konponketa / Reféction voirie ..... 16
Chemins piétons / Oinezkoen bideak ..... 16

## OBRAK / TRAVAUX
Pont Arruntza / Arruntzako zubia ..... 17
Kiroleta ..... 17

## ELKARTEAK / ASSOCIATIONS
UztaHitzan ..... 18
Charte éco-citoyenne / Gutun ekohiritarra ..... 19
Forums des associations / Elkarteen foruma ..... 19

## LABURRAK / BREVES
Travaux d'amélioration et de rénovation énergétique ..... 20
Bizitegiaren hobetzeko eta berritzeko obrak ..... 20
France Services, une nouvelle offre proposée par la Poste ..... 20
Ramassage des déchets dans la forêt ..... 21
Oihaneko hondarkinen bilketa ..... 21
A la découverte d'Errepiragaraia / Errepiragaraia deskubritu ..... 21
Les obligations légales de débroussaillement ..... 22
Sasiak garbitzeko betebeharrak ..... 22
Journées du patrimoine / Ondarearen egunak ..... 22
Jardins fleuris / Etxe loratuak ..... 23
Fête des jeux / Jokoen festa ..... 23
Comice agricole / Laborantza komizea ..... 24
Frontons Bilgune / Bilguneko pilota plazak ..... 24
Semaine bleue / Aste urdina ..... 25

## OPOSIZIOA / OPPOSITION
Ensemble pour Ustaritz ..... 26
Ustaritz avec bon sens ..... 27

## EGOERA ZIBILA / ETAT CIVIL ..... 28



Argitaratze zuzendaria / Directeur de publication : Bruno CARRERE
Diseinua / Mise en page : Harri IDOATE - Izarte Komunikazioa - www.izarte.com
Inprimaketa ardura / Imprimé par : Izarte Komunikazioa



AURKIBIDEA
SOMMAIRE


*Photo de couverture prise par Pantxika Etchepare dans le cadre du concours photo réalisé entre agents municipaux.

* Pantxika Etcheparek hartutako argazkia, herriko langileen arteko ehiaketarentzat.





**Bruno CARRERE**
Auzapeza / Maire

Uztariztar maiteak,

2023ko azken urte erdian  Herriko Etxea bere egoitza berrian instalatu dugu, garaian Lapurdi izendatua zen egoitzan.

Herriko agente eta hautetsiek antolaketa hau zuen onerako pentsatu dugu, horretarako herriko zerbitzuak lan baldintza ezin hobean ezarri ditugu. Gure gastu eta aztarna ekologikoa hobeki menperatu nahian alde energetikoa proiektuaren ardatza izan da.

Herriko zerbitzu administratiboak hor biltzeak Gaztelondoa eraikinari xede soziala eman  dio. Engoitik arlo sozialean eragiten duten egiturak han bilduko dira (lehen haurtzaroa, pertsonei laguntza, eri direnei laguntza).

Asteroko merkatua Lota jauregiaren inguruan eginen da, saltzaileei gune abegitsua  eskainiz. Leku berri honek mediateka, eskolak, eliza eta haurtzaindegia Herriko Etxearen inguruan kokatzen ditu eta elkarteen egoitzak pilota plazaren inguruan.

Berri ugarien artean aurrekontu partehartzailearen arrakasta azpimarragarria da. Gure elkarte sarearen eta auzoetako komiteen bizitasuna erakusten du.

Gazteen Herriko Kontseiluak denen onerako diren proiektuetan erakutsi duen ardura txalotu nahi nuke ere.

Aldizkari honetan euskararen alde daramagun lanari buruzko artikulu bat irakur dezakezu.  Plazara egiturarekin elkarlanean gure asmo politikoa ekintzetan gauzatuko dugu: euskara jalgi hadi plazara!

2024. urte xoragarria opa dizuet, zorionez et elkarbizitza on baten pozez betea izan dadila.

Chers Uztariztar,

Ce dernier semestre 2023 a été marqué par l’installation des services municipaux dans la nouvelle mairie, au sein du bâtiment autrefois appelé Lapurdi.

Cet équipement a été pensé par les agents et les élus pour vous offrir le meilleur service en plaçant les services municipaux dans des conditions optimales de travail. Les aspects énergétiques ont été au cœur du projet pour une meilleure maîtrise de nos dépenses et une baisse de notre empreinte écologique.

Cette nouvelle unité des services administratifs municipaux a permis de donner une vocation sociale au bâtiment Gaztelondoa, qui héberge désormais des structures opérant dans le domaine social (petite enfance, aide à la personne, aide aux malades).

Le marché hebdomadaire, désormais situé aux abords aménagés du Château Lota, accueille les commerçants dans un espace convivial. Ce nouvel emplacement renforce le caractère de centralité autour de la mairie, de la médiathèque, des écoles, de l’église, de la crèche et des bâtiments associatifs autour du fronton.

L’actualité est riche et il convient de souligner le succès du premier budget participatif qui traduit bien le dynamisme de notre tissu associatif et de nos comités de quartiers.

L’occasion m’est ici également donnée de tirer un grand coup de chapeau aux jeunes du Conseil Municipal des Jeunes qui mènent des projets avec maturité et un grand sens du bien commun.

Un article complet de ce bulletin est dédié à notre démarche au profit de la langue basque. Notre volonté politique est accompagnée par la structure Plazara qui nous permettra un réel déploiement d’actions concrètes : euskara jalgi hadi plazara !

Je vous souhaite une excellente année 2024, sous le signe du bien vivre ensemble. Qu’elle vous comble de bonheur et de joie.

# HIRIGINTZA ZERBITZUARI BEGIRADA BEREZIA



Zuen eskaerak mailez urbanisme@ustaritz.fr helbidera igor ditzakezue edo hitzordu bat har dezakezue Herriko Etxeko internet gunearen bitartez (info praktikoak)

Hitzordua linean har ezazue www.ustaritz.fr webgunean.

Lurralde bateko lurren erabilpena antolatzea du xede hirigintzak, kultura arloko berezitasunak errespetatuz, baita laborantza jardueraren egonkortasuna ere, gure natura guneen eta oihanaren zaintza baitezpada segurtatuz, eraikuntza egitasmoen garapenarekin beharrezko oreka lortzeko gisan.

Helburu hau betetzeko, hainbat eskaeraren azterketarako euskarri gisa baliatzen diren dokumentu desberdinetan idatzitako zenbait arau eta gunetze agindu behar dira, dokumentu nagusia PLU/THP, Tokiko Hirigintza Plana izanki.

Estrategikoa da hirigintza politika Uztaritze bezalako herri batean, hainbat betebeharri erantzun behar baitie, baionako hirigunearen hain hurbil delako.

Gaur egun Uztaritzen Euskal Hirigune Elkargoari (CAPB/EHE) dagokio eskumen hau, hautetsiekin eta herriko zerbitzu dedikatuekin elkarlanean. Herritarren bitarteko dira azken hauek eta EHE-k laguntza teknikoa ekartzen die.

Maxime DIRIBARNEren zuzendaritzapean, txostenen aitzin bideratzeaz eta jarraipenaz baita uztariztarrei eskaini aholkularitzaz ere arduratzen dira Jean-Yves INCHAUSTI eta Hélène ITHURRITZE. Denbora erdiz berriki hartua izan den Lydia LAMAGDELAINE, administrazio idazkariak, taldea osatzen du.

Herriko lurren erabilpenari dagokion araudien berri ematea du xede hirigintza zerbitzuak. Aholkuak ematen dizkizue ere eraikitze baimenentzat edo obrak egiteko aitzin deklarazioentzat.

# ZOOM SUR LE SERVICE URBANISME



L'urbanisme a pour vocation d'organiser l'occupation des sols d'un territoire afin de trouver un équilibre harmonieux entre le développement des projets de constructions dans le respect de nos spécificités culturelles, la pérennisation de l'activité agricole et la nécessaire protection des espaces naturels dont la forêt.

L'atteinte de cet objectif passe par l'édiction d'un certain nombre de règles et zonages repris dans plusieurs documents servant de support à l'instruction des différentes demandes, le principal étant le Plan Local d'Urbanisme ou PLU.

La politique d'urbanisme est stratégique pour une commune telle qu'Uztaritze, soumise à de fortes contraintes, du fait de sa proximité avec l'agglomération bayonnaise.

A ce jour sur Uztaritze, cette compétence est exercée par la Communauté d'Agglomération Pays Basque (CAPB), en lien étroit avec les élus et le service dédié de la commune. Ces derniers sont le relais des administrés et bénéficient de l'appui technique de la CAPB.

Sous la direction de Maxime DIRIBARNE, le service urbanisme est piloté par Jean-Yves INCHAUSTI et Hélène ITHURRITZE, chargés de la pré-instruction et du suivi des dossiers, ainsi que du conseil auprès des Uztariztar. L'équipe a été récemment renforcée par l'arrivée à mi-temps d'une secrétaire administrative, Lydia LAMAGDELAINE.

Le service urbanisme a pour mission de vous renseigner sur la réglementation de l'usage des sols de la commune. Il vous conseille aussi pour vos projets tels que les permis de construire ou les déclarations préalables de travaux.

Vous pouvez adresser vos demandes par mail à l'adresse urbanisme@ustaritz.fr ou prendre rendez-vous via le site internet de la Mairie.

**Infos pratiques :**
Prenez RDV en ligne
www.ustaritz.fr

# COMBIEN D'UZTARIZTAR SOMMES-NOUS ?

## Du 18 janvier au 24 février 2024, Uztaritze réalise le recensement de sa population

Une équipe d'agents recenseurs a été recrutée à cet effet. Ils viendront à votre domicile pour vous rencontrer et vous délivrer un questionnaire à remplir :

- soit en format papier à remettre à votre interlocuteur,

- soit en dématérialisé sur le site internet du recensement.

Merci de réserver le meilleur accueil à nos agents recenseurs et de leur répondre dans les meilleurs délais, après leur passage.

Les réponses sont strictement confidentielles et seront remises à l'INSEE pour établir des statistiques anonymes, conformément aux lois qui protègent votre vie privée.

**Pour rappel, ces statistiques servent de base au calcul de diverses dotations de l'Etat au budget de la commune.**

La dernière population légale a été évaluée au 1er janvier 2023 à 7 673 Uztariztar.




# ZENBAT UZTARIZTAR GARA?

## 2024. urteko Urtarrilaren 18tik Otsailaren 24ra Uztaritzen biztanleen erroldatzea eginen dugu.

Erroldatzea egiteko agente taldea osatu dugu. Zuen etxeetatik pasatuko dira eta bete beharreko galdera zerrenda emanen dizuete.

Bi aukera :

- edo paperezko galdera zerrenda bitartekariari itzuliko diozue,

- edo erroldaren webgunean galdera zerrenda desmaterializatua eginen duzue.

Gure erroldatze agenteei ongietorria egiezue eta ahal bezain fite erantzun haien galderei, plazer baduzue.

Erantzunak konfidentzialak dira, INSEE-ri bidaliko dizkiogu estatistika anonimoak egin ditzan, bizitza pribatua babesten dituzten legeen errespetuz.

**Oroitu, estatistika horiek Estatuak Herriaren aurrekontuei dotazioa erabakitzeko oinarri gisa kontuan hartuak dira.**

2023ko Urtarrilaren lehenean, uztariztarren kopuru legala 7.673 biztanletakoa zen.

# UN NOUVEL EMPLACEMENT POUR LE MARCHÉ HEBDOMADAIRE

Depuis quelques semaines, le marché hebdomadaire du samedi matin a changé d'emplacement et pris ses marques autour du château Lota. Un espace aménagé autour du château permet d'accueillir les producteurs et les clients dans de meilleures conditions tout en offrant une visibilité plus importante.
Le marché du samedi constitue un rendez-vous hebdomadaire convivial qui permet de faire ses achats auprès de producteurs locaux, partager un café ou un verre. Régulièrement, des animations sont proposées pour dynamiser ce rendez-vous.

N'hésitez pas à venir faire un tour, découvrir les nouveaux producteurs et consommer des produits de qualité.



# ASTEROKO MERKATUARENTZAT LEKU BERRIA

Azken asteetan, larunbat goizeko merkatua lekuz aldatu da eta bere markak Lota jauregiaren inguruan hartuak ditu. Han antolatutako espazio batek ekoizleak eta bezeroak baldintza hobeetan hartzeko aukera ematen du, ikusgarritasun handiagoa eskainiz.
Larunbatetako merkatua asteroko hitzordu atsegina da, tokiko ekoizleei erosketak egiteko, kafe edo baso bat partekatzeko. Erregularki, hitzordu horren dinamizatzeko animazioak proposatuak dira. Zalantzarik gabe, zatoz itzuli baten egitera, ekoizle berriak ezagutzera eta kalitatezko ekoizpenak kontsumitzera.

# ACCUEIL DES NOUVEAUX UZTARIZTAR

Le vendredi 13 octobre, une quarantaine de nouveaux Uztariztar ont répondu à l'invitation du maire, Bruno Carrère, et de son équipe pour une soirée d'accueil et de présentation de la commune. Cette rencontre conviviale a permis de présenter les grandes lignes de l'action municipale aux personnes récemment installées sur la commune. Eric Mailharrancin, adjoint à la participation citoyenne, a présenté les différents dispositifs mis en place, en particulier les comités de quartiers. Ce fut l'occasion pour les nouveaux Uztariztar d'entrer en relation avec leurs représentants et leurs élus référents. Cette expérience sera renouvelée à l'avenir afin que les personnes nouvellement arrivées sur Uztaritze puissent découvrir leur commune et la richesse de son tissu associatif.



# UZTARIZTAR BERRIEI ONGI ETORRIA

Urriaren 13an, ostiralarekin, 40 bat uztariztar berrik erantzun zioten Bruno Carrère auzapezaren eta haren taldearen gomitari, herriaren aurkezpen gaualdi baterako. Giro goxoan iragan zen topaketa horri esker, herriko etxearen ekintzen ildo nagusiak aurkeztu ahal izan zitzaizkien Uztaritzera berrikitan etorritakoei. Eric Mailharrancinek, herritarren parte hartzeaz arduratzen den auzapezordeak, abian ezarri dispositibo ezberdinak aurkeztu zituen, bereziki auzo batzordeak. Uztariztar berriek beren ordezkari eta hautetsi erreferenteekin harremanetan sartzeko aukera izan zuten. Esperientzia hau etorkizunean berritua izanen da, Uztaritzera heldu berriek beren herria eta elkarte sarearen aberastasuna ezagut ditzaten.

## LA COMMUNE A CHANGÉ D'IDENTITÉ VISUELLE EN PARTICULIER DE LOGO

L'objectif principal était de doter Uztaritze d'une charte graphique qui permette d'améliorer la visibilité et l'identification de la commune. Le processus pour aboutir à ce travail a duré plusieurs mois. Accompagnés par le cabinet de communication Studio Waaz, les chefs de service, le Directeur Général des Services et les élus ont mené une réflexion tenant compte de l'histoire d'Uztaritze et de sa localisation.

Ce nouveau logo a pris toute sa place dans la nouvelle mairie, le site internet, le bulletin municipal, les bâtiments municipaux, les véhicules…

## HERRIAK BERE NORTASUN BISUALA ALDATU DU, BEREZIKI LOGOTIPOA

Helburu nagusia Uztaritze herria nortasun grafiko batez hornitzea zen, herriaren ikusgarritasuna eta identifikazioa ahalbidetzeko. Lan hori egiteko prozesuak zenbait hilabete iraun du. Studio Waaz komunikazio kabineteak lagundurik, zerbitzu buruek, Zerbitzu zuzendari orokorrak eta hautetsiek gogoeta bat egin dute Uztaritzeko historia eta haren kokapena kontuan hartuz.

Logotipo berri horrek bere lekua hartu du herriko etxe berrian, webgunean, aldizkarian, herriko eraikinetan, ibilgailuetan…




## PROJET DE NOUVELLE MÉDIATHÈQUE

Nous rappelons ici l'ambition de la nouvelle médiathèque, qui doit être le lieu référence de la politique culturelle de la commune. Trois axes votés en conseil municipal en juin 2022 précisent sa mission : les liens familiaux et intergénérationnels, l'égalité d'accès à la culture, la sensibilisation au patrimoine.

L'étape suivante de définition de la programmation du bâtiment a été votée en conseil municipal en juillet 2023. Un concours d'architectes a été lancé et le marché attribué.

La future médiathèque se situera à proximité de la mairie, du château Lota et des écoles, accentuant ainsi le caractère de centralité de cette zone.

Au-delà des supports habituels (livres, magazines, DVD…), un espace numérique sera disponible. De plus, une salle d'expression culturelle (théâtre, conférences, chants, expositions, …) est incluse dans ce projet.

La concrétisation de ce projet ambitieux est conditionnée à l'obtention d'aides financières suffisantes de la part des partenaires institutionnels. L'ensemble des acteurs est conscient de cet impératif.

## MEDIATEKA BERRIAREN PROIEKTUA

Mediateka berriaren anbizioa oroitarazten dugu hemen, herriko kultur politikaren erreferentzia gunea izan nahi du. 2022ko ekainean herriko kontseiluan bozkatuak izan ziren hiru ardatzek zehazten dute haren egitekoa: familia eta belaunaldi arteko loturak, kultura eskuratzean berdintasuna, ondareari sentsibilizazioa.

Eraikinaren programazioa definitzeko hurrengo urratsa herriko kontseiluan bozkatua izan zen 2023ko uztailean. Arkitekto lehiaketa bat antolatua izan zen eta merkatua izenpetua.

Etorkizunean mediateka herriko etxetik, Lota jauregitik eta eskoletatik hurbil kokatuko da, eremu horren zentraltasuna areagotuz.

Ohiko euskarrietatik haratago (liburuak, aldizkariak, DVDak…), gune digital bat izanen da. Gainera, proiektu honetan kultur adierazpen gela bat aurreikusia da (antzerki, mintzaldi, kantaldi, erakusketa…).

Anbizio handiko proiektu horren gauzatzea partaide instituzionalen laguntza ekonomikoa eskuratzeak baldintzatzen du. Baitezpadako betebehar horretaz kontziente dira aktore guziak.



# INAUGURATION DE LA MAIRIE

Depuis l'été, le regroupement des services municipaux au sein de la nouvelle Mairie est effectif et contribue à l'amélioration de l'accueil des administrés en ce lieu unique.

Les Uztariztar ont pu visiter ces locaux lors des journées du patrimoine mi-septembre. Le 24 novembre dernier l'inauguration officielle s'est déroulée en présence des représentants des institutions ayant participé au financement du projet. Au nom de l'Etat, Fabrice Rosay, sous-préfet de Bayonne, Jean René Etchegaray, Président de la Communauté d'Agglomération Pays Basque, les parlementaires Max Brisson et Vincent Bru, Philippe Etcheverria, conseiller départemental, Olivier Alleman, réprésentant de la sénatrice Denise Saint Pé, les maires des communes du pôle Errobi et les entreprises qui sont intervenues sur le chantier ont tous participé à cette inauguration.

L'occasion pour Bruno Carrère de remercier tous les acteurs de ce projet important pour la commune.

# HERRIKO ETXEAREN ESTREINA

Udaz geroztik, Herriko Etxe berrian bilduak dira herriko zerbitzu guziak eta leku bakar horrek herritarren harrera hobetzen lagundunduko du.

Irail erdialdeko ondarearen egunen karietara, uztariztarrek egoitza berria bisitatzeko parada ukan zuten. Joan den Azaroaren 24an, proiektua diruz lagundu duten instituzioen ordezkariak estreina ofizialean zeuden: Estatuaren izenean, Fabrice Rosay Baionako suprefeta, Jean-René Etchegaray Euskal Hirigune Elkargoko lehendakaria, Max Brisson eta Vincent Bru parlamentariak, Philippe Etcheverria, departamenduko kontseilaria, Olivier Alleman, Denise Saint Péren ordezkaria, Errobi poloko auzapezak eta obretan parte hartu duten enpresak.

Herriarentzat garrantzitsua den proiektu horretan parte hartu dutenei eskerrak emateko aukera zen Bruno Carrère auzapezarentzat.



# BIDE ORRIA

Lehen kargualditik, herriko zerbitzuetan eta Uztaritzeko herritarren artean euskararen garapena laguntzeko hautua egin du Herriko etxeak. Aitzinamendu kontratu bat izenpetua izan da Euskal Hirigune Elkargoarekin, euskara ikasteko gogoa agertzen duten herriko langileen formakuntza elkarren artean diruztatzeko.

Azken herriko aldizkarian aipatu bezala, Plazara kooperatibarengana jo dugu euskararen egoeraren diagnostikoa egiteko herrian. Kontseilutik kanpoko batzordearen (Uztaritzeko hautetsiz eta elkartez osatua) eta zerbitzuburuekin egin zenbait bilkuraren ondoren, euskararen lekua herrian azkartzeko beharrak hobeki aztertu ahal izan ditugu.

Diagnostiko horretan oinarriturik, ondoko urteetarako bide orri berri bat apailatzen lagundu gaitu Plazarak. Publiko desberdinei (haur, gazte, heldu, herriko langile, hautetsiei...) zuzendu ekintza plan batzuen inguruan hedatzen da bakoitzari euskara ikasteko bidea errazteko gisan.

Hauek dira helburu nagusiak:

- euskara gehiago agerraraztea komunikazio euskarri publiko edo pribatuetan,
- euskara sare elebidun eta murgiltzekoetako hizkuntza baizik ez izatea saihestea, bere lekua har dezan eguneroko bizian.

Euskararen egoera kritikoa da Ipar Euskal Herrian. Azken ikerketa soziolinguistikoak agerian jartzen du hiztun gehiago galtzen ditugula, baina, gehien bat euskalduna ez den kanpoko biztanle berrien etorrerak (12.000 pertsona etorri berriak urte guziez lurraldean) euskaldunen kopuruaren apaltze bat eragiten du Ipar Euskal Herrian. Hala, euskararen biziraútea ez da oraindik bermatua eta gutariko bakoitzari, euskalduna izan ala ez, dagokigu haren zaintzaz arduratzea.

Bide orria eta ekintza plana Herriko Kontseiluan bozkatuak izanen dira eta Uztariztar guziei 2024ko urte hastapenean aurkeztuak izanen zaizkie. Heldu den urtetik beretik dinamika berri bat ekarriko diote lehen gauzatzeek Uztaritzeko hizkuntza politikari.



# FEUILLE DE ROUTE

Depuis le premier mandat, la municipalité a fait le choix d'accompagner le développement de la langue basque dans les services communaux et au sein de la population d'Uztaritze. Un contrat de progrès signé avec la Communauté d'Agglomération Pays Basque permet de cofinancer la formation des agents municipaux qui font le choix d'apprendre l'euskara.

Comme évoqué dans le dernier bulletin municipal, nous avons sollicité la coopérative Plazara pour réaliser un diagnostic de la situation de la langue basque sur la commune. Plusieurs réunions de la commission extra municipale, regroupant des élus et associations d'Uztaritze, des concertations avec les chefs de service ont permis de mieux définir les besoins pour renforcer la place de l'euskara sur la commune.

Sur la base de ce diagnostic, Plazara nous a aidé à élaborer une nouvelle feuille de route pour les prochaines années. Celle-ci se décline en plan d'actions à l'attention des différents publics (enfants, jeunes, adultes, agents, élus...) afin que chacun ait un accès facilité à l'apprentissage de l'euskara.

**Les principaux objectifs sont de :**

- renforcer la présence de la langue basque sur tous les supports de communication publics ou privés,
- éviter que l'euskara se cantonne à la langue des filières bilingues et immersives à l'école afin qu'il prenne toute sa place dans la vie courante.

La situation de la langue basque en Pays Basque Nord est critique. La dernière enquête socio-linguistique démontre que nous ne perdons plus de locuteurs, mais l'apport de population extérieure, majoritairement non bascophone (12000 nouvelles arrivées chaque année sur le territoire) entraîne une baisse de la part des euskaldun dans la population du Pays Basque Nord. Aussi, la survie de la langue basque n'est pas encore acquise et il revient à chacun d'entre nous, bascophone ou pas, de contribuer à sa sauvegarde.

La feuille de route et le plan d'action seront proposés au vote du Conseil Municipal et feront l'objet d'une présentation publique auprès de tous les Uztariztar en début d'année 2024. Les premières concrétisations apporteront dès l'année prochaine une nouvelle dynamique à la politique linguistique d'Uztaritze.

# BEKA: Herriaren laguntza bat euskara ikasteko

Urtero, herriak gastu pedagogikoak finantzatzen ditu euskara ikasi nahi dutenentzat barnetegi baten bidez. Hautagaitza dosierra Herriko Etxeko webgunean (www.ustaritz.fr) eskura daiteke.

**Emma eta Julieren lekukotasunak, gaur egun Foru herrian formatzen ari direnak.**

*" Biek irakasle izan nahi genuke eta euskaraz irakatsi. Gainera, gure inguruko guziek hitz egiten dute euskaraz. Guretzat hizkuntza hori ikasteko modurik hoberena barnetegi batean zenbait hilabetez murgiltzea da. Oraingoz dena biziki ontsa doa. Euskal Herriko probintzia guzietako jendeak ikusten ditugu. Eskola egunak trinkoak dira, baina ludikoak, eta astero ateraldiak antolatzen ditugu. Gainera, formakuntza Gernika ondoan dago, hiri alai eta atsegina. Formakuntza baliagarria da maila pertsonalean zein profesionalean, beraz, ez da zalantzarik izan behar hasteko! Esperientzia ikaragarria da. BOTA! "*



# BEKA : une aide communale pour apprendre l'euskara

Chaque année, la commune finance les frais pédagogiques pour des personnes souhaitant apprendre l'euskara de manière intensive. Le dossier de candidature est disponible sur le site internet de la Mairie (www.ustaritz.fr).

**Témoignages d'Emma et Julie actuellement en formation à Foru**

*" Nous souhaitons toutes les deux devenir professeurs et nous aimerions enseigner en langue basque. De plus, nos entourages respectifs parlent quasiment tous l'euskara. Pour nous le meilleur moyen d'apprendre cette langue était de s'immerger pendant plusieurs mois dans un internat. Pour l'instant tout se passe très bien. Nous sommes entourées de personnes venant de toutes les provinces d'Euskal Herri. Les journées de cours sont denses, mais ludiques, et nous avons des sorties organisées chaque semaine. De plus, la formation est située à côté de Gernika, qui est une ville animée et agréable. C'est une formation utile au niveau personnel et professionnel, donc il ne faut pas hésiter à se lancer !*

*C'est une super expérience ! BOTA ! "*

**Dans la volonté d'assurer la présence de l'Euskara dans la vie courante, la municipalité délivre maintenant des livrets de famille bilingues.**

Euskararen presentzia egunerokotasunean segurtatu nahian, Herriko Etxeak hemendik goiti familia liburu elebidunak banatzen ditu.









# AURREKONTU PARTE HARTZAILEAREN BILANA

Uztaritzeko lehen aurrekontu parte hartzailearen karietara 14 elkartek edo komitek proiektu ederrak proposatu zituzten denen onerako. Parte hartzaileen kopuru handiak, ekarpenen kalitateak eta aniztasunak Uztaritzeko talde-biziaren bizkorsuna erakusten dute.

Bozkatze garaiaren ondotik, uztariztarrek saridunak izendatu zituzten eta haien artean 10.000 €ko saria banatu zen. Heraitzekoop lehen saritua izan zen 198 bozekin, hau da: 1.254 boz numerikoen % 15,79a. Elkarteak Heraitze auzoan bizigune bat sortzeko 5.000 €ko diru laguntza eskuratu zuen (elkarte-ostatu bat, elkarlan tailerrak...).

Heraitzeko elkarteak Paris 2024 kari egin duen proiektuarentzat (132 boz, % 10,37) 2.000 €ko diru laguntza eskuratu zuen. Diru horrekin, mugikortasun urriko pertsonentzat kirol ekipamenduak erosten ahalko ditu.

Ekologiari ematen dioten garrantzia erakutsiz, uztariztarren bozek ingurumenaren aldeko elkarteei ere babesa eman zieten. Hegalaldia elkarteak (130 boz, % 10,37) fauna eta natura babesteko sentsibilizazio ekimenak antolatzeko 2.500 € eskuratu zituen. Aurrekontu parte hartzailearen azken partea, 500 €, ECOGIS elkarteari (108 boz, % 8,69) eman zitzaion, bioaniztasunaren inguruan jende guziei irekitako ibilaldiak eta haurrei zuzendutako tailerrak antolatzeko.

# BILAN DU BUDGET PARTICIPATIF

Dans le cadre du premier budget participatif d'Uztaritze, 14 associations et comités de quartier ont proposé des projets d'intérêt général. Le nombre élevé de participants, la qualité et la diversité des contributions témoignent du dynamisme de la vie collective à Uztaritze.

A l'issue de la période de vote, les Uztariztar ont désigné les lauréats qui se sont partagés la dotation globale de 10000 €. Heraitzekoop est arrivée en tête avec 198 voix, soit 15,79 % des 1254 votes numériques. Cette association a reçu une subvention de 5000 € pour la création d'un lieu de vie au quartier Heraitze (bar associatif, ateliers collaboratifs...).

L'association "D'Herauritz à Paris 2024" (132 voix, 10,53%) a obtenu 2000 € pour l'acquisition d'équipements adaptés à la pratique sportive de Personnes à Mobilité Réduite.

Les associations environnementales ont également été mises à l'honneur par le vote des Uztariztar, preuve de l'importance qu'ils accordent à l'écologie. Hegalaldia (130 voix, 10,37 %) a reçu 2500 € pour financer des animations de sensibilisation à la protection de la faune et de la nature. Le solde du budget participatif, 500 €, est attribué à l'association ECOGIS (109 voix, 8,69%) pour l'aider à financer des balades grand public et des ateliers pour enfants sur le thème de la biodiversité.



# GHK-K ANTOLATUTAKO ZINEMA GAUALDIA

Abuztuaren 26an, larunbatean, 21:30etan, Uztaritzeko Gazteen Herriko Kontseiluak (GHK) zinema saio doakoa antolatu du. «Maison de retraite» filmearen ikustaldia kanpokaldean pentsatua zen arren Bilgune salan egin behar izan zen eguraldi kaxkarrarengatik. Belaunaldi desberdinetako ehunbat uztariztarrek gaualdian parte hartu zuten. GHK-k proiektu honen pauso guztietan parte hartu du: filmearen hautaketa, komunikazioa eta antolaketa materialan, publikoari harrera, filmearen aurkezpena euskaraz eta frantsesez. Gure herria animatzeko lan egiten duten gazte horier gorazarre.

# SOIRÉE CINÉMA ORGANISÉE PAR LE CMJ

Le samedi 26 août, à 21h30, le Conseil Municipal des Jeunes (CMJ) d'Uztaritze a organisé une séance de cinéma gratuite. Prévue en plein air, la projection du film « Maison de retraite » s'est déroulée à la salle Bilgune à cause du mauvais temps. Une centaine d'Uztariztar a participé à cette belle soirée intergénérationnelle. Le CMJ s'est investi dans toutes les étapes de ce projet : choix du film, communication et organisation matérielle, accueil du public, présentation du film en euskara et en français. Félicitations à ces jeunes Uztariztar qui s'impliquent pour animer notre commune

LABURRA / BREVE

# IKASTURTE BERRIA

2023. urteko Irailean, 712 haur Uztaritzeko 5 ikastetxetara sartu dira.

98 Heraltzera, 127 Idekira (horietako 51 elebidunera), 194 St Vincent-era (horietako 89 elebidunera) eta 80 Ikastolara.

Idekia ikastetxean, ama-ikastolako haurrentzat euskaraz murgiltze sail berri batekin hasi da ikasturtea, 22 ikasle hasi dira bertan. Bestalde irakasle lanpostu guztiak mantendu dira eta klase malgu bat antolatu da.

2023. urteko Urriaren 15etik abian den eskolaldi inguruko zerbitzu eta aisialdi guneen barne-araudia eguneratua izan da eta 2023/09/28ko herriko kontseiluan onetsia. Dagozkien familia guztiei horri buruzko informazioa helarazi zaie. Arautegia herriko webguneko Familia Sailean (https://labur.eus/xOpbK) eskuragarria da.

# RENTRÉE SCOLAIRE

En ce mois de septembre 2023, 712 enfants ont fait leur rentrée dans les 5 écoles de la commune.

98 à Heraitze, 127 à Idekia (dont 51 bilingues), 212 à Arruntza (dont 103 bilingues), 194 à St Vincent (dont 89 bilingues) et 80 à l'Ikastola.

A l'école Idekia, cette rentrée scolaire a été marquée par l'ouverture de la section immersive en maternelle en euskara qui a accueilli 22 enfants, le maintien de tous les postes d'enseignants et l'aménagement d'une classe flexible.

Le Règlement Intérieur des services périscolaires et centre de loisirs, qui est effectif depuis le 15 octobre 2023, a été actualisé et approuvé à l'unanimité lors du conseil municipal du 28/9/2023. Une communication a été faite à l'ensemble des familles concernées. Ce règlement est consultable dans le Portail Famille (https://labur.eus/xOpbK) sur le site internet de la commune.



# GAU BELTZA

Le 31 octobre, les enfants de l'ALSH et d'Uda Leku se sont rassemblés pour fêter Gau Beltza.

Joan den urriaren 31n, aisaldi zentroko eta Uda Lekuko haurrek Gau Beltza ospatu zuten elkarrekin.

## L'ÉTÉ AU CENTRE DE LOISIRS

Le centre de loisirs, renforcé par une équipe de saisonniers motivés, a accueilli de nombreux enfants. Ils ont montré leur enthousiasme lors de leur participation aux animations proposées. Les sorties et ateliers ont également connu un vif succès : atelier fusée à eau, sortie à l'aquarium et au musée des sciences Eureka de Donostia, Bidaparc...

L'atelier "je suis animateur" a été organisé par l'espace jeunes. Dans ce cadre, les jeunes ont proposé des animations pour les enfants du centre de loisirs.

Une journée spéciale a eu lieu le dernier jour d'accueil le vendredi 25 août pour fêter la fin des vacances. Au menu : animateurs et enfants déguisés, musique, stands et jeux gonflables. Une journée ouverte aux parents pour créer du lien et de la convivialité. De quoi finir l'été en beauté !



## UDA AISIALDI GUNEAN

Sasoilari talde motibatuen laguntzarekin, aisialdi gunean haur ainitzi egin zaie harrera. Proposatutako aktibitate guztietan gogotsu parte hartu dute. Ateraldi eta tailerrak ere arrakastatsuak izan dira: ur-ziriaren tailerra, akuariumera ateraldia, zientzien Eureka museora ateraldia (Donostiara), Bidaparc...

Gazte guneak "Animatzailea naiz" tailerra antolatu du. Kari horretara, gazteek aisialdi guneko haurrentzat ekimenak antolatu dituzte.

Abuztuaren 25ean, ostiralez, egun berezia antolatu zuten bakantzeen bukaera ospatzeko.
Egitaraua hau izan zen: haur eta animatzaileak mozorrotu ziren, musika, erakusmahainak eta joko puzgarriak izan ziren. Jendarte ona eta harremana sortzeko asmoz, festa egun horretara gurasoak gomitatuak ziren. Uda ederki bukatzeko aukera zen!







## L'ÉTÉ À L'ESPACE JEUNES

**Un très bel été au sein de l'espace jeunes !**

Un projet créatif a été réalisé : la célèbre Mercredi Addams décore maintenant notre bibliothèque. Des ateliers cuisine ont été proposés régulièrement et les animateurs ont fait office de commis de cuisine des ados !

Les jeunes ont contribué à la réalisation du court métrage "Gazoline" sous la direction du réalisateur Baptiste Charlier à Uztaritze. Les jeunes se sont rendu sur le plateau du tournage. Une expérience enrichissante et un beau moment d'échange et de partage. Encore merci à l'équipe du film !

Côté sportif, il y a eu Koh Lanta, Pékin Express, Troc Patate, rallye photos... des classiques qui font toujours plaisir ! Des sorties en lien avec la saison : bouée tractée, accrobranches, kayak, paddle, aqualand, aquazone... bref, que des sourires et du bonheur. Vivement l'été prochain !

## UDA GAZTE GUNEAN

**Uda eder-ederra gazte gunean!**

Sormenezko proiektua gauzatu dugu: engoitik gure liburutegiaren apaingarri izanen da Asteazken Adams famatuaren irudia. Sukaldaritza tailerrak egin ditugu maiz eta animatzaileak gazteen sukaldari-mutil bezala aritu dira lanean!

Uztaritzen, "Baptiste Charlier" filme egilearen eskutik, "Gazoline" laburmetraia egiten lagundu zuten gazteek. Bestalde azken hauek filmalekura joateko aukera ukan zuten. Esperientzia aberasgarria izan zen eta elkartrukatze momentu ederra. Esker mila filmaren ekipoari!

Kirolari dagokionez, Koh Lanta, Pékin Express, Troc Patate, argazki rally-a izan ditugu... plazerrez betezen gaituzten klasikoak! Sasoiko ateraldiak ere egin ditugu: tiratutako flotagailuak, "accrobranches", kayak, paddle, aqualand, aquazone... hau irri eta zorion saltsa! Datorren uda berehala etor dadila!

**Rentrée septembre 2023**

## LE TEMPS PÉRISCOLAIRE

Reprise du projet de cabane au périscolaire d'Hérauritz. Un don de palettes par des parents a encouragé l'aménagement de l'espace vert mis à disposition près de l'école en juin dernier. Pour cette rentrée, le projet a pu reprendre et le beau temps de ce mois de septembre a permis de commencer la peinture. Côté potager, c'est la récolte des piments !

**2023 ikasturtearen hastapena**

## ESKOLALDI INGURUKO DENBORA

Herauritzeko eskolaldi inguruko denboran etxolen proiektua berrasi da. Joan den Ekainean guraso batzuek egurrezko paletak oparitu zizkiguten eta eskola ondoko berdegunea antolatzeko gogoa piztu zigun. Aurtengo ikasturte hastapenean proiektua berrasi dugu eta Iraileko eguraldia lagun margoketa lanak hasi ditugu. Baratzean, piperrak biltzen ari gara!





# BIDE KONPONKETA

Arruntzan, Portuko bidearen berritzea 92 000 €ko kostuarekin egina izan da

Uztaritzen sartzen diren auto gidariek ainitz baliatzen duten bide nagusia izanki, Haltyko patarraren egonkortze lan handiak egin dira bidea berrituz eta bide bazterrak berriz eginez. Obren kostua: 56 000 €koa. Hiribehere karrikaren antolaketa prestatzeko aukera ere ematen dute, Haltia/Guadalupea zatian.

# REFECTION VOIRIE

La rénovation de la route de Portua, à Arruntza, a été réalisée pour un coût de 92 000€

Axe majeur très fréquenté par les automobilistes qui entrent à Uztaritze, la côte d'Halty a bénéficié de travaux importants de stabilisation avec réfection de la bande de roulement et reprofilage des fossés. Coût des travaux : 56 000€. Ils permettent aussi de préparer l'aménagement de la rue Hiribehere sur le tronçon Haltia/Guadalupea.



## CHEMINS PIETONS

Depuis plusieurs années, la municipalité ouvre ou restaure des chemins piétonniers favorisant ainsi les mobilités douces.

Le chemin reliant Heraitze à Etxeparea-Hiribehere sous la côte d'Halty est très fréquenté. Pour en faciliter l'usage et le rendre plus propre, les marches ont été réhabilitées et l'ensemble gravillonné.

N'hésitez pas à l'utiliser !

## OINEZKOEN BIDEAK

adu zenbait urte herriko etxeak oinezkoen bideak ireki edo zaharberritzen dituela, joan-jin goxoak sustatuz.

Heraitze eta Etxeparea-Hiribehere lotzen dituen bidea, Haltyko patarraren azpian, biziki baliatua da. Haren erabilpena errazteko eta itxura garbiagoa izan dezan, eskailerak konpondu ditugu, eta bide osoa legar xehez estali.

Ez izan zalantzarik haren erabiltzeko !

# PONT ARRUNTZA

Le Département a finalisé les travaux du pont d'Arruntza ainsi que le rond-point vers le haut du quartier.

La commune a assuré les travaux d'aménagement autour et est régulièrement intervenue auprès du Département afin que les voies piétonnes et cyclables sécurisées soient bien mises en place.

# ARRUNTZAKO ZUBIA

Departamenduak bukatu ditu Arruntzako zubiaren obrak, bai eta auzoaren gainaldeko biribilgunea ere.

Herriko etxeak bazterretako antolaketa lanak segurtatu ditu eta Departamenduarekin harremanetan egon da erregularki, oinezko eta bizikleta bide seguruak ezarriak izan daitezen.





# KIROLETA

Le complexe Kiroleta, utilisé pour la pelote, les écoles, le centre de loisirs, l'espace jeunes, le tennis et les diverses manifestations de nos associations vient de faire peau neuve.

En effet, ce bâtiment, construit à la fin des années 60, nécessitait une réfection complète de la toiture, complétée par la rehausse du mur de gauche et la reprise de la peinture pour un total de 324 300 euros, lui donnant ainsi une nouvelle jeunesse.

Nous avons profité de ces travaux pour augmenter la surface des panneaux solaires (de 60 m² à 232 m²) mis en place par la coopérative citoyenne I-ENER.

Pilotan aritzeko, ikastetxeen, aisialdi zentroaren, gazte gunearen, tenisa eta gure elkarteen hainbat ekitaldi antolatzeko erabiltzen den Kiroleta kirol gunea berritu dugu.

60. hamarkadaren bukaeran eraikia izan zen. Teilatua osoki berritu diogu, ezker pareta goratu eta tindatu, orotara 324.300 €ko gastua eginez. Horri esker gaztetasun berri bat eman diogu.

Obra horiekin batera eguzki panelen azalera handitzeko aukera ukan dugu (60 m²-tik 232 m²-ra). I-ENER kooperatiba herritarrak du lan hori burutu.

EUSKARA

# UztaHitzan.

Pour son édition 2023, le festival Uzta Hitzan a proposé une semaine riche d'activités en euskara qui a rassemblé un public nombreux lors des différents rendez-vous. Pendant deux semaines, l'exposition au sujet de l'émigration basque était visible dans la salle Lapurdi, ponctuée de la conférence assurée par Argitxu Camus Etchecopar.

Autre conférence, organisée avec IKAS, celle d'Anuntxi Arana à propos de Mari Domingi suivie de la diffusion du documentaire d'Olentzeroren Lagunak, Transmisioa.

Les enfants ont également pu profiter du festival. Tout d'abord, à l'occasion d'une lecture de contes assurée par Itxaro Goyheneche, agent de la médiathèque. Puis lors des deux spectacles : "Ttinka" de Philippe Albor et Arantxa Hirigoyen et "Flipluf" d'Arantxa Lannes et Maider Martineau. Ceux-ci ont connu un franc succès.

L'habituelle soirée organisée avec Zortziko a permis aux 80 spectateurs de profiter de l'humour de Pantzo Irigaray. Enfin, cette semaine s'est términée au Gaztetxe dans une bonne ambiance grâce aux chanteurs d'Uztaritzen Kantuz. Rendez-vous est donné l'année prochaine.

2023ko ediziorako, Uzta Hitzan festibalak euskarazko aste aberatsa proposatu zuen, hitzordu ezberdinetan jende anitz bildu zuena. Bi astez, euskal emigrazioari buruzko erakusketa ikusgai egon zen Lapurdi gelan, eta haren inguruko mintzaldia izan zen Argitxu Camus Etchecopar hizlariak emanik.

Beste mintzaldi bat, IKASekin antolatua, Anuntxi Aranarena Mari Domingiri buruz eta ondotik Olentzeroren Lagunak dokumentalaren emanaldia, Transmisioa izenekoa.

Haurrek ere festibalaz gozatzeko aukera izan zuten. Lehenik mediatekan, Itxaro Goyhenechek segurtatu zuen ipuin irakurketa baten karietara. Gero bi ikusgarritan : Philippe Albor eta Arantxa Hirigoyenen "Ttinka" eta Arantxa Lannes eta Maider Martineauren "Flipluf".

Zortziko elkartearekin antolatu ohi den gaualdiak Pantzo Irigarayren umoreaz gozatzeko aukera eman zien 80 ikusleei. Azkenik, aste hau bukatu zen Gaztetxean, giro onean, Uztaritzen Kantuz taldeko kantariei esker. Hitzordua berriz hartua dugu heldu den urteko.

















# CHARTE ÉCO-CITOYENNE

Le samedi 9 septembre, une quarantaine d'associations ont signé la charte éco-citoyenne, qui comprend cinq engagements en matière de développement durable :

• Diminuer et mieux gérer les déchets, développer une politique d'achat éthique (limitation des déchets, tri sélectif, recyclage et actions de sensibilisation...).

• Privilégier les déplacements doux (à vélo ou à pied) et les transports collectifs (bus et covoiturage compris).

• Réduire la consommation des ressources énergétiques en sensibilisant les usagers aux économies d'eau et d'énergie.

• Communiquer dans le respect de l'environnement (dématérialisation des outils de communication, optimisation des impressions...).

• Être une association inclusive et éco-citoyenne (handicap, parité, origines, euskara...).

# GUTUN EKOHIRITARRA

Irailaren 9an, berrogeibat elkartek ekohiritar gutuna izenpetu zuten. Azken honek garapen iraunkorrari dagozkion bost engaiamendu barnebiltzen ditu:

• Zaborra gutxitu eta hobeto kudeatu eta erosketa etikoaren politika garatu (zaborrak mugatu, tri selectif, berziklatze eta sentsibilizazio ekimenak egin...)

• Mugimendu goxoak (bizikletaz eta oinez) eta garraio kolektiboak (autobusa eta autokidetza) lehenetsi.

• Baliabide energetikoen kontsumoa gutxitu. Erabiltzaileak uraren eta energien ekonomietaz jakitun egin.

• Ingurumenaren errespetuan komunikatu (komunikazio tresnak desmaterializatu, inpresioak optimizatu...).

• Elkarte inklusibo eta ekohiritarra izan (helbarritasunak, parekotasuna, jatorriak, euskara...)

## FORUMS DES ASSOCIATIONS

Le samedi 9 septembre s'est déroulé à Bilgune le traditionnel forum des associations, organisé conjointement par le pôle associations municipal et Uztaritzeko Elkarteen Batasuna (union des associations d'Uztaritze). De 9h à 13h, un public nombreux est venu découvrir les activités culturelles, sportives ou environnementales proposées sur la commune. Adultes comme enfants ont ainsi eu l'occasion de s'inscrire et recueillir des informations sur les activités proposées.

## ELKARTEEN FORUMA

Irailaren 9an, larunbatez, elkarteen ohiko foruma egin zen Bilgunen, elkarteen herriko guneak eta Uztaritzeko Elkarteen Batasunak antolaturik. 9:00tatik 13:00tara herrian eskaintzen diren kirol, kultura edo ingurumenari buruzko aktibitatean ezagutzera jende ainitz hurbildu zen. Haurrek zein helduek aktibitateei buruzko informazioa lortu ahal izan dute, baita izena emateko aukera ere.



## TRAVAUX D'AMÉLIORATION ET DE RÉNOVATION ÉNERGÉTIQUE DE VOTRE LOGEMENT

La Communauté d'Agglomération Pays Basque a mis en place un Programme d'Intérêt Général (PIG) d'Amélioration de l'Habitat. SOLIHA Pays Basque assure l'animation de ce dispositif.

La commune d'Uztaritze soutient ce dispositif permettant d'accompagner, à chaque étape de leur projet, les habitants du territoire, propriétaires occupants ou bailleurs, dans leur projet d'amélioration de l'habitat : travaux d'adaptation, économie d'énergie incluant plusieurs types de travaux, travaux de rénovation importants, etc.

SOLIHA PAYS BASQUE est Espace Conseil France Rénov' : il apporte des conseils gratuits aux particuliers et accompagne les ménages qui ont un projet de travaux dans leur logement.
SOLIHA Pays Basque vous accueille sur rendez-vous : des permanences gratuites d'informations et de conseils pour vous aider dans votre projet se tiennent au bâtiment Lagunen Etxea (1er étage, salle 8), 91 Place de Bilgune, le 3ème mardi du mois de 10h00 à 12h00, sur RDV obligatoirement.
Prendre rendez-vous :
en écrivant à habitat.paysbasquesoliha.fr ou par téléphone au 05 59 46 31 50, du lundi au jeudi de 14h00 à 17h00 en vous connectant sur monprojet.anah.gouv.fr




## ZUEN BIZITEGIAREN HOBETZEKO ETA BERRITZEKO OBRAK

Bizitegia Hobetzeko Interes orokorreko Programa (PIG/IOP) plantan ezarri du Euskal Hirigune Elkargoak. SOLIHA Euskal Herriak du dispositibo honen animazioa bere gain hartzen.

Bizitegia hobetzeko duten egitasmoa gauzatzeko, lurraldeko herritarrak, izan bertan bizitzen diren jabeak ala alokatzaileak, egitasmoaren urrats bakoitzean laguntzea ahalbidetzen duen dispositibo hau sostengatzen du Uztaritze Herriak: egokipen obrak, obra desberdinak sarrarazten dituen energia aurreztea, berritze obra handiak, etab.

Espace Conseil France Rénov' da SOLIHA EUSKAL HERRIA eta partikularrei aholkuak urririk ematen dizkie eta haien etxebizitzan obrak egiteko asmoa duten familiak laguntzen ditu.
Hitzordua hartuz harrera eskaintzen dizue SOLIHA Euskal Herriak:
Informazio eta aholku permanentziak urririk eskainiak zaizkizue zuen egitasmoa gauzatzen laguntzeko Lagunen Etxea erakinean (1. estaian, 8 gelan) Bilgune Plazako 91n, hilabateko 3. igandearekin, 10:00etatik 12:00etara, baitezpada hitzordua hartuz.
Hitzordua hartzeko: habitat.paysbasquesoliha.fr helbidera idatzi edo 05 59 46 31 50 zenbakira, astelehenetik ostegunera, 14:00etatik 17:00etara deituz edo monprojet.anah.gouv.fr gunera joz





## RAMASSAGE DES DÉCHETS DANS LA FORÊT

Le 30 septembre, dans le cadre du programme Sea Cleaners, la Poste, des habitants et des élus sont venus collecter des déchets dans le secteur d'Apala, près de la cabane des chasseurs. Sous la houlette de Claire, agent ONF, les volontaires ont enlevé de vieux tubex qui en leur temps ont protégé les jeunes arbres des animaux.

Bilan de la matinée, près de 300 kg de déchets récoltés : plastiques, verres, ferrailles ou textiles.

Nous remercions la Poste qui a choisi notre forêt pour son action, l'ONF, Bil ta Garbi, Valérie Picabea, agent municipal, qui a orchestré cette journée et les habitants d'Uztaritze ayant participé à cette matinée. Un grand merci pour notre forêt !

## OIHANEKO HONDARKINEN BILKETA

Irailaren 30ean, Sea Cleaners programaren karietara, Posta, biztanle eta hautetsi batzuk Apala inguruan zaborra biltzera etorri ziren, ihiztarien etxolatik hurbil. Claire, ONF-eko agentearen gidaritzapean, garaian zuhaixkak abereetaz babesteko erabili ziren plastikozko hodiak kendu zituzten.

Goizeko lanaren emaitza, kasik 300 kg hondarkin bildurik: plastikozko hondarkinak, berinakiak, burdineria edota jantzi puskak. Esker mila Postari gure oihana hautatzeagatik; ONF-ari, Bil ta Garbi-ri, Valérie Picabea herriko langileari egun hau antolatzeagatik eta parte hartu zuten uztariztar guziei. Esker mila gure oihanaren izenean!

## A LA DÉCOUVERTE D'ERREPIRAGARAIA, SITE NATUREL ET SENSIBLE REMARQUABLE

Depuis le mois de septembre, la balade de 2 km autour du plan d'eau d'Errepiragaraia est devenu pédagogique. Avec l'aide de l'association Ecogis, qui œuvre à la protection et la valorisation du patrimoine naturel, six panneaux ont été installés. Ils présentent le site, son histoire, son fonctionnement hydraulique, la biodiversité et les projets qui y sont développés. Si Errepiragaraia est un espace sensible et inondable (zone rouge du PPRI), de nouveaux aménagements sont prévus pour le rendre plus accueillant et plus facile d'accès, dans le respect de la biodiversité et en concertation avec les usagers.

## ERREPIRAGARAIA DESKUBRITU, GUNE NATURAL ETA SENTIBERA

Irailaz geroztik, Errepiragaraiako aintziraren inguruan, 2 km-ko ibilaldia pedagogiko bilakatu da. Ondare naturalaren babesteko eta balorizatzeko lanean ari den Ecogis elkartearen laguntzarekin, sei panel instalatuak izan dira. Gunea aurkezten dute, haren historia, haren funtzionamendu hidraulikoa, bioaniztasuna eta bertan garatzen ari diren proiektuak. Errepiragaraia urpetua gertatzen den gune sentibera bada (PPRIren eremu gorria), harrera hobea egiteko antolaketa berriak pentsatuak dira, sarbide errazagoa, bioaniztasuna errespetatuz eta erabiltzaileekin elkar adituz.



## LES OBLIGATIONS LÉGALES DE DÉBROUSSAILLEMENT (OLD)

Les incendies de l'été 2022 ont rappelé la fragilité des forêts et la rapidité de propagation des incendies lors des périodes où la végétation est sèche. En été (27%) mais aussi, chez nous, en automne-hiver (73% !)

Depuis novembre 2022 un arrêté préfectoral fixe les modalités et la liste des communes soumises aux OLD dont Uztaritze fait partie.

Dans 9 cas sur 10 le feu démarre à cause d'une action humaine. Le débroussaillement diminue les risques de propagation des incendies.

Par cette réglementation, les propriétaires (privés et publics) sont tenus de débroussailler les 50 mètres autour de leurs bâtiments mais aussi des terrains voisins s'ils sont à moins de 50 mètres des bâtis. Ces derniers ont l'obligation d'autoriser l'accès à leur terrain. Un refus engage leur responsabilité juridique.

Pour tout renseignement supplémentaire contacter la préfecture des Pyrénées-Atlantiques ou consulter le site de l'Office National des Forêts : https://labur.eus/y1gGK

## SASIAK GARBITZEKO BETEBEHAR LEGALAK (OLD)

2022ko suteek oihanen ahulezia eta idorte garaietan suteen hedatze abiadura handia oroitarazi zizkiguten. Udan (% 27), baina gure herrian udazken/neguan ere (% 73!)

2022ko Azaroaz geroztik prefekturaren erabaki batek OLD-a bete behar duten herrien zerrenda, Uztaritze barne, eta betetzeko modalitateak zehazten ditu.

10etarik 9 kasutan sutea giza ekintza baten ondorioz hasten da. Sasien garbitzeak suteen hedatzearen arriskua ttipitzen du.

Araudi horren arabera, jabeek (pribatuak ala publikoak) beren eraikinen inguruan 50 metrotara sasiak garbitzeko betebeharra dute,baita eraikinetarik 50 metro baino hurbilago diren lur sailak ere. Jabeak beren lurretara sartzeko baimena ematera behartuak dira. Sartzeko debekuaren ardura juridikoa haien gain da.

Informazio gehiago lortzeko Pirinio-Atlantikoetako prefeturarekin harremanetan sartu edo Oihanen Bulego Nazionalaren (ONF) webgunera joan:  https://labur.eus/y1gGK

## AIMA

Comme nous nous y étions engagés, en ce qui concerne l'aménagement de la nouvelle mairie, une recherche de matériel de seconde main a été privilégiée. Provenance des équipements  : 47% déjà existant en interne, 11% de matériel de seconde main et 42% de matériel neuf. Le matériel de seconde main a été acheté à AIMA et AIBA, associations à but non lucratif œuvrant contre le gaspillage et pour le réemploi solidaire (www.aimaletrocoeur.org).

Herriko Etxe berriko obrei dagokienez, hitzeman bezala bigarren eskuko materialak erabiltzea lehenetsi dugu. Ekipamenduen etorkia: % 47 barne materiala da, % 11 bigarren eskuko materiala eta % 42 material berria. Bigarren eskuko materiala AIMA eta AIBA elkarteei erosi diegu, bi elkarte hauek irabazteko xederik gabekoak dira, xahuketaren aurka eta elkartasunezko berrerabiltzearen alde ari dira (www.aimaletrocoeur.org).

## JOURNÉES DU PATRIMOINE

En partenariat avec l'association Herri Soinu, la commune d'Uztaritze a participé aux journées Européennes du Patrimoine. Un nombreux public a visité le château de Haitze avec pour guide le propriétaire M. De Laborde Nogues. La journée s'est terminée par un concert de qualité du chœur « Enara ». Par ailleurs, une visite de la nouvelle mairie était assurée par les élus afin de faire découvrir les locaux aux Uztariztar.

## ONDAREAREN EGUNAK

Uztaritze herriak, Herri Soinu elkartearekin elkarlanean Ondarearen Europako egunetan parte hartu zuen. Haitze jauregiaren jabea den De Laborde Nogues jaunak bere jauregia bisitari anitzi erakutsi zien. Egunaren bukaeran Enara abesbatzak kontzertu aparta eskaini zuen. Bestalde, uztariztarrei Herriko Etxe berria ezagutarazteko bisita antolatu zuten hautetsiek.



## JARDINS FLEURIS

Le 2 décembre, les prix ont été remis par le maire Bruno Carrère aux participants du concours des jardins fleuris, lors d'une réception en Mairie. Le maire a félicité les lauréats pour la qualité de leur jardin, qui participent à l'embellissement de la commune. Et à cette occasion de rendre hommage à Pierre Tauzin fidèle participant au concours depuis des années malheureusement décédé il y a quelques mois.

## ETXE LORATUAK

Abenduaren 2an, Bruno Carrère auzapezak sariak eman zizkien etxe loratuen lehiaketan parte hartu zutenei, herriko etxean antolatutako bilkura batean. Auzapezak eskertu ditu parte hartzaileak. Duela zenbait hilabete zoritxarrez hil zen Pierre Tauzin, lehiaketako parte hartzaile leiala: haren omentzeko aukera izan zen ere bai.

**JARDIN DE VILLE**
**1er prix :** Marie-Thérèse ARLAS
**2ème prix :** Sandrine BERNEAU

**JARDIN ESPACE MOYEN**
**1er prix :** Jean-Marie EYHARTS
**2ème prix :** Jeannette DUHALDE
**3ème prix ex-aequo :** Josette BOUSSIERES et Christiane DE BOYER MONTEGUT

**JARDIN GRANDS ESPACES**
**1er prix :** Robert PILON
**2ème prix :** Véronique BESSONART

## MARCHÉ DES CRÉATEURS

Samedi 18 novembre, a eu lieu le marché des créateurs qui a rassemblé une vingtaine d'exposants et un public nombreux. Pour l'occasion, le bar et le traiteur du marché hebdomadaire ont proposé une restauration à Bilgune.

## SORKUNTZA MERKATUA

Azaroaren 18ko larunbatean, sortzaileen merkatua egin zen, hogei bat erakusmahairekin, anitz jende bilduz. Horren karietara, asteroko merkatura heldu diren ostalariak eta janari prestatzaileak jatekoa eta edatekoa proposatu zuten Bilgunen.





## FÊTE DES JEUX

Afin de célébrer le début des vacances d'été en famille, le Service Enfance Jeunesse a organisé une « fête des jeux » le vendredi 7 juillet. L'événement s'est déroulé sur le parvis de Mailiarena. Des grands jeux en bois, des jeux de société et un bar à jus de fruits ont permis à tous de passer un bon moment en famille. Une quarantaine de personnes a participé à cette première édition sur le thème de l'été.

## JOKOEN FESTA

Udako bakantzak familian osapatzeko asmoz, haur eta gazteen zerbitzuak "Jokoen festa" antolatu du Uztailaren 7an, ostiralez. Ekitaldia Mailiarenaren atarian antolatua izan da. Zurezko joko handiek eta gizarte jokoek fruitu jusen ostatu baten inguruan momentu goxo bat sortu dute denentzat. Udako giroan berrogeibat pertona bildu ziren lehen ekimen horren kari.





# COMICE AGRICOLE

Le comice agricole a, cette année, ouvert les fêtes d'Uztaritze. Cinquante bovins, vingt équins et dix lots d'ovins se sont partagés le site de Xopolo sous un soleil de plomb. Merci aux éleveurs, partenaires, au comité des fêtes et à toutes les personnes qui ont permis de réaliser cette belle journée qui s'est conclue par un excellent repas.

# LABORANTZA KOMIZEA

Laborantza komizeak Uztaritzeko bestak ireki zituen aurten . Berrogeita hamar behik, hogei zaldik eta hamar ardi multzok Xopoloko pentzea bete zuten erretzeko eguzkipean. Milesker kabala hazleei, laguntzaileei, besta komiteari eta bazkari hautarekin bukatu zen egun eder hura antolatu ahal izan zuten pertsona guziei.



## FRONTONS BILGUNE

Après la réfection totale des filets, il restait la reprise des sols de toute la kantxa. Ce travail délicat, d'un montant de 7 000 €, a été confié à l'entreprise Dioné pour avoir un sol drainant, parfaitement plat et amortissant. Comme indiqué par le panneau sur place, l'accès à la kantxa est réservé aux piétons. Les 2 roues, roller, pétanque et autres sont interdits.

## BILGUNEKO PILOTA PLAZAK

Sareak osoki berritu ondoan, kantxa guziko lurren erreberritzea gelditzen zen. Lan delikatu hori, 7.000 €koa, Dioné enpresari eman zitzaion, zoladura drainatzailea ukaiteko xedez, guziz ordokia eta motelgarria. Han berean dagoen panelak dioen bezala, kantxan sartzea oinezkoek bakarrik dute haizu. Debekatuak daude bi errotako ibilgailuak, irristailuak, petanka eta beste.








# SEMAINE BLEUE

## Du 2 au 6 octobre, la « Semaine Bleue » a mis à l'honneur les seniors à Uztaritze.

Parmi les diverses animations, une nouveauté était proposée : le Forum des Seniors et des Aidants. Les participants ont pu découvrir les dispositifs et aides existants en fonction de leurs besoins (financiers, physiques, aides à domicile...).

Au cours de cette semaine, les seniors ont profité de différentes activités : un goûter musical, des représentations de danses et de chants, des ateliers physiques adaptés en fonction de leurs capacités, un atelier informatique et un loto géant. Tous ces moments de partage se sont déroulés dans la joie et la bonne humeur !
N'hésitez pas à vous manifester auprès du CCAS afin de connaître les animations proposées tout au long de l'année.

Nous remercions tous nos partenaires ayant participé : le lycée Saint Joseph, les EHPAD Eliza Hegi et Andaula, le Centre de Ressource Ardité ya Vieil Assantza, Uztaritzen Kantuz, les associations Osasuna et Ur Begi, SOLIHA, Présence verte, Maîllage, Alegera, le SDSEI d'Uztaritze, le SISTF 64, la MSSPBA ainsi que les plateformes Viatrajectoire et Ogénie.

# ASTE URDINA

## Urriaren 2tik 6ra, "Aste Urdina"k adinekoak ohoratzen ditu Uztaritzen.

Animazio ezberdinen artean, berrikuntza bat proposatzen zen: Adinekoen eta Zaintzaileen Foroa. Parte hartzaileek beren beharren arabera dauden dispositiboak eta laguntzak ezagutu ahal izan dituzte (finantzak, fisikoak, etxez etxeko laguntzak...).

Astean zehar, adinekoek ekintza ezberdinez gozatu dute: askari musikala, dantza eta kantu emanaldiak, gaitasunaren arabera egokitutako tailer fisikoak, informatika tailerra eta loto erraldoia. Partekatze une horiek alaitasun eta umore onean gertatu ziren !

Ez izan dudarik CCASaren aitzinean agertzeko, urte osoan proposatuak izan diren animazioen ezagutzeko.

Gure partaide guziek parte hartu dute: San Josep lizeoa, Eliza Hegi eta Andaula zahar etxeak,, Vieil Assantza Arditeya Baliabide Zentroa, Uztaritzen Kantuz, Osasuna eta Ur Begi elkarteak, SOLIHA, Présence Verte, Maillage, Alegera, Uztaritzeko SDSEI, SISTF 64, MSSPBA eta Viatrajectoire eta Ogenia plataformak.

# OPOSIZIOA

## CONTRIBUTION «ENSEMBLE POUR USTARITZ»

**BILAN….**
Le dernier bulletin municipal a été l'occasion pour la majorité de faire un bilan d'étape à mi-mandat et d'annoncer les perspectives à venir. Après 3 années d'opposition où nos points de vue ont été écoutés en commission et en conseil municipal mais jamais entendus, il nous apparaît judicieux de reprendre quelques points de ce bilan, de les nuancer en les éclairant du point de vue de notre groupe et de **pointer quelques oublis, qui sont peut-être le reflet d'une absence de volonté de communication sur des sujets qui fâchent…**

**PERSPECTIVES …**
Une médiathèque ambitieuse mise en avant (alors absente du programme de 2020) avec un coût soumis à l'obtention de subventions, amènera la majorité à faire des choix et des arbitrages budgétaires. **Allons-nous continuer à devoir augmenter les impôts fonciers comme cette année de plus de 10** % ou alors oublier, comme dans les « perspectives du dernier bulletin municipal » une partie du programme notamment les projets de dynamisation des cœurs de quartiers, les tennis couverts, un terrain multisport et une filière Universitaire STAPS …
Encore une fois le quartier Hérauritz et sa fameuse école devra-t-il en faire les frais ?
**Le PLU voulu par la majorité commence à impacter sérieusement le logement accessible** laissant la part belle au marché privé et a pour conséquence une stagnation des effectifs dans les écoles publiques du Bourg et d'Hérauritz .Voilà comment régler le problème de la construction d'une nouvelle école !

**LAC ERREPIRAGARAIA**
**Un projet d'aménagement du lac Errepiragaraia revu à la baisse et bien loin des ambitions du candidat de 2020** (voir dans le programme initial …). Encore une fois, nous n'avons pas été associés au projet. Le 4 octobre 2023, en commission transition écologique environnementale, nous a été présenté le résultat final. Un tour pédagogique du lac, avec un panneau à l'entrée particulièrement dissuasif (« Kasu danger !! », et 6 panneaux pédagogiques après… ). Une connexion avec le bourg et le chemin de halage en mobilité douce inexistante. A croire que la majorité municipale ne veut pas valoriser ses atouts naturels !

Au bout de 3 années d'opposition constructive, nous regretterons l'absence de considération sur les remarques et les idées que nous apportons et déplorons le manque de transparences sur les différents projets de la commune .
Ensemble Pour Ustaritz souhaite à tous les ustaristar de joyeuses fêtes de fin d'année et nos meilleurs vœux pour 2024.

## «ENSEMBLE POUR USTARITZ» EKARPENA

**BILANA…**
Azken herriko aldizkaria aukera izan da gehiengoarentzat agintaldi erdiko bilan baten egiteko eta etorkizuneko perspektibak iragartzeko. Hiru urteko oposizioaren ondoren, non gure ikuspuntuak entzunak izan diren batzorde eta herriko kontseiluetan baina nehoiz kondutan hartu gabe, zentzuzkoa iduritzen zaigu bilan horren puntu batzuk biltzea, ñabardurak egitea gure taldearen ikuspegitik argituz eta ahanztura batzuk aipatzea, agian gaiei buruzko komunikazio borondate ezaren isla direnak…

**PERSPEKTIBAK…**
Anbizio handiko mediateka batek (2020ko programatik kanpo zena), diru laguntzak ukaiten dituen kostu batekin, gehiengoak aitzinkontu hautuak eta arbitratzeak egitera eramanen ditu. Aurten bezala, ondasun higiezinen gaineko zergak %10etik gora emendatu beharko ditugu edo, "azken herriko buletinaren perspektibetan" bezala, programaren zati bat ahantzi, bereziki, auzoen bihotzen dinamizazio proiektuak, tenis estaliak, kirol anitzeko zelai bat eta STAPS Unibertsitateko sail bat…

Berriz ere Heraitze auzoak eta bere eskolak ondorioak ordaindu beharko dituzte?
Gehiengoak nahi duen HTPak biziki eragiten dio merkatu pribatuari zati ederra uzten dion etxebizitza eskuragarriari eta, ondorioz, Herri Elkargoko eta Heraitzeko eskola publikoetako haur kopuruetan apaltze bat eragiten du.

**LAC ERREPIRAGARAIA**
Errepiragaraia lakuaren antolaketa proiektu bat, beheiti berrikusia eta 2020ko hautagaiaren handinahietatik urrun (ikus hastapeneko egitarauan…). Berriz ere, ez gara proiektuarekin lotu. 2023ko urriaren 4an, ingurumenaren trantsizio ekologikoaren batzordean, azken emaitza aurkeztu ziguten. Lakuko dorre pedagogiko bat, sarreran bereziki disuasioa duen panel batekin ("Kasu danger!!", eta 6 panel pedagogiko ondotik…). Herri zentroarekin eta zirga-bidearekin loturarik ez. Iduri du gehiengoak ez dituela ontasun naturalak baloratu nahi!

3 urteko oposizio eraikitzailearen ondotik, deitoratuko dugu ekartzen ditugun ohar eta ideiekiko begirunerik eza, eta deitoratuko dugu herriko proiektu ezberdinei buruzko gardenkeriarik eza.
Elgarrekin uztaritzentzat, urte bukaerako besta alaiak eta 2024rako gure desiorik hoberenak opa dizkiete uztariztar guziei.

## CONTRIBUTION «USTARITZ AVEC BON SENS»

Malgré le contexte actuel très difficile et l'augmentation du coût de la vie, il nous faut à notre niveau de simples élus, continuer de travailler, proposer et agir.
Les fins d'années sont l'occasion de faire le bilan de l'année écoulée.
En ce qui concerne 2023 :
1) Nous retiendrons les deux sujets à nos yeux majeurs de cette année passée. La nouvelle mairie, nécessaire pour une ville de notre envergure et la hausse des impôts moins nécessaire à nos yeux mais choix de la majorité actuelle.
2) Nous regrettons le fonctionnement de la majorité et son manque d'écoute pour l'opposition.
Par exemple, notre proposition sur la création des bassins de retenue d'eau de pluie (et non de pompage ) a fait sourire mais c'est pourtant cette proposition qui a été adoptée pour débat en 2024 par la Commission Errobi composée d'élus des 11 communes du Labourd intérieur.
Devant l'évidence du réchauffement climatique et le manque d'eau a venir, cette construction permettrait de :
-freiner les inondations à venir
-être une source d'approvisionnement pour une agriculture réfléchie et/ou pour l'élevage
-créer un site nouveau pour la biodiversité
-être une source d'approvisionnement pour les riverains et les pompiers.
Dans nos préconisations, nous proposons aussi au delà d'une étude un véritable plan d'action autour de la lutte contre le gaspillage dans les collectivités. Il existe dans certaines villes, des dons du surplus de nourriture n'ayant pas été consommée dans les cantines. Des composts de grande taille sont installés pour recycler les déchets de la restauration scolaire et les utiliser ensuite pour les espaces verts municipaux.
Pour aller plus loin, nous pourrions ouvrir les cantines de nos jeunes Ustaritzars aux personnes âgées. Cela permettrait de donner la possibilité à nos anciens de sensibiliser les jeunes sur l’intérêt de consommer au plus juste et également de lutter contre l’isolement des personnes seules.
A l’heure ou nous écrivons cet article nous sommes toujours dans l’attente de propositions sur le devenir de la rampe de la chapelle Ste Catherine. Pour rappel, une rampe d’accès PMR à été réalisée par une entreprise mandatée par la municipalité sans concertation avec les principaux concernés. En effet, Le groupe majoritaire a omis d’informer Monsieur le curé ainsi que le président de l’association des amis de la chapelle alors qu'une convention tri partite les unis. Les habitants du quartier Herauritz ont découvert avec stupeur cette rampe qui défigure la chapelle. Nous regrettons cette absence de concertation.

Nous espérons que l'année 2024 sera marquée par plusieurs projets pour qu'Ustaritz puisse proposer lieux et activités qui fédèrent les générations et qui permettent de se rencontrer.

Pour finir, nous vous souhaitons de passer de belles fêtes et une heureuse année 2024.

## “UZTARITZE ZENTZUAREKIN” EKARPENA

Bizi dugun kontestu gogorraz eta biziaren prezioaren igoeraz gain, hautetsi gisa lanean segitu behar dugu. Ekin eta proposamenak egin .
Urtea bukatzean bilana egiten ohi dugu.
2023. urteari dagokionez:
1) Bi gai nagusi nabarmenduko genituzke. Herriko Etxe berria, gure herriaren neurriari egokitua. Eta zergen igoera, nahiz eta udal-gehiengoaren hautu hau ez zaigun hain beharrezkoa iruditzen.
2) Udal-gehiengoaren funtzionamendua eta oposizioari ez-entzuna egitea deitoratzen dugu. Horren adibidea da euria berreskuratzeko arroak eraikitzeko (eta ez ponpaketa egiteko) gure proposamenari irriño batekin erantzun izana. Alta, Lapurdiko barnekaldeko 11 herrik osatzen duten Errobi Batzordeak proposamen hau hartu dute 2024ko eztabaidarako oinarri gisa.
Eraikuntza horrek, klimaren berotzearen eta ur faltaren parean ahalbidetuko lituzke:
- datozen uholdeen mugatzea
- baratzagintza eta abeltzantza neurtuentzat ur iturria izatea
- biodibertsitate gune berri bat sortzea
- ibaiertzekoentzat eta suhiltzaileentzat ur iturrria izatea.
Kolektibitateetan egiten den xahuketaren kontrako borrokan zinezko ekintza plana proposatu genuen. Herri batzuek jantokietan soberan gelditu den janaria ematen dute. Eskola-jantokietako hondakinak berziklatzeko, neurri handiko konposta guneak antolatu dira eta ongarria herriko gune berdeetan erabiltzen da gero.
Bide horretan pauso bat gehiago emateko, zaharrak jantokira etortzea ahalbidetu genezake. Harri batez bi txori, zaharrek gazteei kontsumo justuaren interesa erakusten ahalko liekete eta bakartasunaren kontrako neurria ere izan daiteke.
Hitz hauek idazten ari garen bitartean, ST Catherine kaperaren barandari buruzko proposamenaren berririk ez dugu. Herriko Etxeak entrepresa bati mugikortasun urriko pertsonentzat baranda bat eraikitzea agindu zion, baina bertakoei aipatu gabe. Horiek horrela, apez jauna eta kaperaren lagunen elkarteko lehendakaria ez ziren abisatuak izan. Alta, hiruko hitzarmen batek Herriko Etxeari lotzen ditu. Herauritzeko biztanleek kapera desitxuratzen duen baranda horren sorpresa txarra ukan dute.

2024. urtea Uztaritzeko herrian belaunaldien arteko topaleku, elkartze gune eta aktibitateak sustatzeko proiektuz josia izatea espero dugu.

Amaitzeko, urte bukaerako festa on eta 2024. urte zoriontsua opa dizuegu.

# EGOERA ZIBILA / ETAT CIVIL

## SORTZEAK – Naissances

RADEUIL Nora, Elena, Cyprienne - BROGNARD Tessa, Cornellia, Fabienne - VERONIQUE Jayleah, Catherine, Syltanise - LESCA Victoria - HOUBRON CHERIN Léa, Annick, Elisabeth - POLLEUX Maé - DEROUIN Mya, Ariana, Eva - HINGANO Soli, Roie - ANDRES HEGUILUSTOY Automne - COYANDE Noa - GORDON MICHAUD Cassandre - RETHORET Léo, Marius, Francis - ETCHART Kepa, Pierre, Emile - PASCOUAU HIRIART Raphaël - LAVIELLE Ilune - RICO Lenny, Noah, Sohan - NUCCIO PERAL Enio, Jérôme, Marceau - IRIBARREN Eneko, Jean, Gérard - LINTINGRE SOULA Julia, Mélissa - DA SILVA LISAMBERT Ohana, Vérène - ETCHEVERRY GOBBI Cléa - MULQUIN Camille, James, Peio - AYPHASSORHO Ana - GUIMARD Louna - GUIMARD Thiago - COLONNA Oihan, Arthur - GOROSURETA Odei - RAZIN Anaïa - ESPONDA Adei - EMERIT Alma - GERMAIN Joana - GREBERT LE LIBOUX Lya - GREBERT LE LIBOUX Mila - VIDALOT BROSSAULT Olann - TREMBLO SARABANDO Maiana, Rakel - PUJO Milo, Vincent, Maxime - MARCEL Gabin - MARTINEZ HARAN Alaia - ACEBES Louis, Angel - DEUBEL PONSOLLE Tilio, Jean-François - ELGART Mathis - IDIART Esti - BLAIRY BENITO Ethan - DRAGOS Hannah, Alessia - VELASCO Y ALONSO Dixon, Jordan-Junior, Phoenix - RODRIGUES Guilhème, Ibai - OYHAMBERRY Maëlya, Marie, Olivia - MARIE Raphaëla - BUTLER Oscar, Timothy - LONNE FORGET Ander, Jean, Christian - METREAU Inalya - ALKHAT ALBERDI Luma - ETCHECHURY Gehexan, Andoni

## EZKONTZAK – Mariages

Emeline LARRUE & Jérémy, Bernard PEREZ - Véronique, Thérèse, Claudine FOUCAULT & Pascal SERRANO - Mathilde, Marie, Françoise COMBES & Romain, Maurice, André LARROUDE - Audrey, Hélène CONTRERAS & Antoine, Louis, Julien BROUSSE - Emilie, Stéphanie LE BOUHELLEC & Sébastien, Yves CANEVET - Charlène, Michèle KONIECZNY & Florien, Alexandre FAUTRELLE - Patricie, Danièle CHAPERON & Eric, Cédric BETACHET - Aurélia, Elise ONCHALO & Loïc, Jean JEULAND - Sébastien, Thierry, Daniel NUCCIO & Charlotte, Marie PERAL - Jeannette, Reine OYHAMBOUROU & Alain MIGUELTORENA Alain - Sophie ROGER & Stéphan, Marc, Dominique BONNORD - Carole, Juliette, Gisiane RUBIGNY & Jérôme, Maxime DURAND

## HERIOTZEAK – Décès

DELORT épouse MAURAN Marie-Jeanne - ELICECHE épouse GAMARD Yvonne, Juliette - ETCHEPARE Sauveur - HUARTEMENDIA ALZATE épouse CORNEC Maria, Jesus - SOUHARSE épouse YVEN Monique, Andrée - ASCARRAGA épouse CHOLIN Thérèse - DE ARRUTI Juliette Madeleine - SISTIAGUE Jean-Christian - BIADOS Jean, Claude - BENOIST Claude, Amédée, Gaston - NAZARET épouse BENOIT Denise - ETCHAVE épouse BORDA Marie, Carmen - DAUGUEN Jean-Pierre - LARTEGUY Louis, Pierre - DUBOIS Marie-Claire - CWIKLINSKI Etienne, Robert - TESTEMALE Pierre, Etienne - GASSUAN Dominique - DENEUX Gilles Jean-Jacques - GOUDALLE Lucy, Gioria - GALOISY Gérard, André - SIMONETTO épouse LE FRANCOIS Anne, Yvette, Suzanne - SANSENACQ Paul, François - MENDY Raymond - BASULTO épouse CARBON Julia - MONTEAU Véronique, Isabelle - LARZABAL Marie-Magdeleine - SALABERRY Jean-Pierre



ustaritz@france-services.gouv.fr
05.59.01.75.53

## FRANCE SERVICES, UNE NOUVELLE OFFRE PROPOSÉE PAR LA POSTE D'UZTARITZE.

Si vous avez besoin de conseils pour vos démarches administratives (allocations familiales, assurance maladie, assurance retraite, impôts, MSA, pôle emploi…) ou besoin d'aide pour l'utilisation d'un service numérique, vous pouvez vous rendre à La Poste d'Uztaritze qui est devenue Agence France Services depuis octobre 2023.

## FRANCE SERVICES, UZTARITZEKO POSTAK PROPOSATU ZERBITZU BERRIA.

Zure desmartxa administratiboentzat aholkuak behar badituzu (familia laguntzak, erien asurantza, adinekoen asurantza, zergak, MSA, Pôle Emploi…) edo laguntza behar baduzu zerbitzu numeriko baten erabiltzeko, Uztaritzeko Postetxera jo dezakezu, France Services agentzia bilakatua baita 2023ko urritik.